

# Preso(ohi)ak zapatan



**RUBEN SÁNCHEZ  
BAKAIKOA**  
IRAKASLEA

**H**ego Euskal Herriko udal hauteskundeetan kanpainen zenbait zerrendatan odol delituak zituzten preso ohiak egotea izan zen debate mediakoetako bat eta, ondoren, lagun horiek atzera egin zutela.

Beharbada, mugimendu harekin EH Bilduk zenbait boto irabazi zituen, eta modu zabalagoan, ziur naiz, herritar batzuen begietara irabazi zuela bilatzen zuena: ETak eragindako biktimekiko enpatia, borroka armatuarekiko urruntasuna eta atzoko eta gaurko ezker independentistaren arteko aldea erakustea. Argi dago, egunen batean, EH Bilduk hauteskundeetan hegemonia politikoa irabaziko badu, beharrezkoak dituela aurreko hiru helburuetan sakontzea.

Besterik da, gai honetan (eta beste batzuetan) ezker independentista noraino eta nola “normalizatzen” den eta (hauteskunde) garaipen egunean, noraino eraldatu den. Noizbait, Polizia, hezkuntza, osasungintza, hedabide eta txiringito publikoen kudeaketara helterako, zer tarte izango duen aldaketak edo aldaketatxoak egiteko. Bestela esanda, gaur meloiak ereiten badituzu bihar meloiak jasoko dituzu.

Horregatik, hauteskunde lehiatik harago, edo lehenago, edo ondoan, hitz egin beharko litzateke espetxeaz, adibidez (eta beste gai batzuei buruz). Izan ere, badu atzera bueltarik preso egonda-

ko pertsonak hautagai (edota interben-tore) izateko aukerak?

Espetxeak zigorrerako eta pertsonen suntsipenerako diseinaturiko ezlekuak dira, autoritarismoa, biolentzia, droga legalak eta ilegalak, morrontza, lan esplotazioa eta abar erabiltzen dute pertsonak makurrarazteko. Dena gizartearen begietatik aparte. Espetxetik aterata ere, oro da traba burokratiko eta laguntzarik eza, familia eta lagun inguru indartsurik ezean, preso ohiak hura du azken traba handia “birgizarteratze” deiturikoari begira.

Zigorraldia bete ondoren, edozein preso ohik eskubidea du lanean hasteko, kirola egiteko, antzerkera joateko, alderdi politiko batean militatu edo hauteskudetara aurkezteko. Orain, hautes-tsi ez izateko aurrekari honekin, legez aitorturik zuten eskubide bat *de facto* kendu zaie pertsona preso ohiei, tira, “odol deliturik” zutenei.

Noiz bukatzen da zigorra? Sinesten dugu espetxean zigorra bete duen pertsona batek bizitza berria hasteko duen eskubidean? “Birgizarteratzean” sinesten dugu? Zergatik ez diogu uzten gizarteari beren boto edo boto ezaren bidez pertsona horren egokitasuna ebatzi dezan?

Beti pentsatu dut eskoletako ikasleak, museo, txango eta abarrez gain, zabor-tegiak eta espetxeak ezagutzera eraman beharko liratekeela. Motibo bat gehiagorekin, orain. ●

# Parkean



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**E**txe aurrean parke eder bat daukat. Ederra, gure porlanezko herri zulo honetako parametroetan, behintzat. Zuhaitzak, bankuak eta txintxau-nak daude, eta bertan bizitzaren hasiera eta amaiera elkartzen dira, muturretako adinetakoak ume eta zahar. Zaintza lanetan ibili ezik, helduak ez dira bertaratzen, beste espazio batzuk dituzte eta. Baina gero eta gazte eta heldu gehiago egoten dira bankuetan jarrita. Hori bai, beste jatorri bat daukate, eta parkearen adina orekatzen dute.

Zabulu bako erdigunean, baloiak dira jaun eta jabe. Jaun, pelota atzetik dabil-

tzanak mutikoak eta ez hain mutikoak direlako. Jabe, plazarenak, pelotakaden beldur. Baloiak, gainera, erdigunetik desagerrarazten ditu neskatilak, eta bazterretara kondenatu. Jaun eta jabe, beraz.

Umeei galdetu diete herri batzuetan parkeak diseinatzerakoan, baina ez zaharrei, edo zaintzaileei, gure imajinarioan haurrena baino ez delako parkea, ez zaharrena, ez helduena. Helduak, tabernetara. Zaharrak, hor konpon.

Baina gerizpeaz eta haizeaz disfrutaztea denon aukera izan beharko litzateke, eta parke humanoagoak aldarrikatu guztiondako. ●